



EAE-KO JAIOTZETIKO GAIXOTASUNEN JAIOBERRIENTZAKO BAHEKETA PROGRAMA

- **Sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, kate ertaineko deshidrogenasa Azil CoA-aren eskasia, fibrosi kistikoa eta zelula faltziformeen anemia** jaiotza-gaixotasun larriak dira; ume gutxik izaten dituzte, baina laster tratatzen ez badira atzerapen mentala sor dezakete lehenengo bien kasuan, eta bat-bateko heriotza hirugarren gaixotasunaren kasuan. Laugarren eta bosgarrenari dagokienez, garaiz antzemateak afektaturik dagoen umearen bizitza kalitatea hobetzen du eta konplikazio larriak gutxitzen dizkio.
- Gaixotasun horiek bizitzako 48 ordu/egun 2tik aurrera analisi erraz baten bidez detektatzen dira. Tratamendua eraginkorra da.
- Proba **ospitaleko alta hartu baino lehen** egingo da, eta ez du inolako minik sortzen orpoko ziztadaxoak egiten duena salbu.
- Probaren emaitza positiboa bada, Programa koordinatzen duen medikua familiarekin harremanetan jarriko da informazio emateko eta bigarren egiaztapen analisi bat programatzeko. Bigarren hori ere positiboa izango balitz, **tratamendua** berehala hasiko litzateke.

- Proba hau Osasun eta Kontsumo Sailak **doan** eskaintzen die EAEn jaio diren biztanle guztiei.
- Amaren eta jaioberriaren identifikazio-datuak Osasun eta Kontsumo Saileko **Jaioberriko Baheketa Erregistroan** idatziz jasota geratuko dira. Sail honek zainduko du datuen konfidentziasuna eta datuok programaren helburuetarako baino ez dira erabiliko.
- Hondakin-laginak biltegian gordeko dira datuen konfidentziasuna babestuz, indarrean dauden erregulazio etikoak eta legalak kontuan hartuta. Gurasoek uko egin diezaiokete eta probak egin ondoren horiek baztertzea edo deuseztatzea eska dezakete, baita laginen tratamenduari buruzko informazioa gehitzea ere.

Osasun zentroaren telefonoa:



PRUEBA del TALÓN

PROGRAMA DE
CRIBADO NEONATAL DE ENFERMEDADES
CONGÉNITAS DE LA CAPV